



Hildakoak omentzeko eguna.- Ohiturari jarraiki asko izan ziren lore sorta ederra eskutan, atzo hilerria gerturatu ziren herritarrek. Eguraldi ona lagun, oinez igotzeko hautua egin zuten askok, helduenak kotxez gerturatu zituzten eta batzuek berriz, Mantangorriren zerbitzu bereziak baliatu zituzten. Lore sortek kolorez apaindu zituzten hilobi grisak. Okendo plazan zein hilerriaren sarreran egon ziren lore saltzaileak ostiraletik. Jendeak oraindik klabelinak ditu gustukoen Ormazabalako Arantxak esan bezala, hala ere, jende gazteagoa bestelako lorez osatutako apaingarriak erostera animatzen da. Salmentak iaz bezala joan zirela aipatu zuten, herritar asko igandean, goizean goiz gerturatu ziren edota ostiral edo larunbatean zehar. Izan ere, egun honetan sortzen diren auto pilaketak etab. ekiditeko, bisita aurreratu egiten da azken urteetan. "Hilobiak atondu eta loreak uzten dituzte aste osoan zehar" aipatzen zuten. Datozen egunetan dotore azalduko da hilerria.

2 ELKARBIZITZA Ganbo Iturriren 'Elkarbizi' saio berria

Joxan Rekondo Ganbo Iturriko kidea izan zen hizlari larunbatean. "Euskal gizartearen memoria eta erresilientzia indarkeriaren aurrean" izenburupean aritu zen bizikidetzaz lantzeko helburua duen egitasmoaren baitan. Euskal gizarteak autokritika egiteko beharra duela nabarmendu zituen besteak beste.

5 ANTZERKIA Lan eta Lan taldearen 18. urteurrena

18 urte dira HHI-EPA ikasle ohiek osatutako taldeak haien antzerkiarekiko zaletasuna oholta gainera eramateko saltoa eman zuela. Hau ospatzeko, hainbat ekintza izango dira gaurtik hasita. Erakusketa osatu dute Mercero gunean eta hainbat antzerki lan eskainiko dituzte asteen zehar euren lana erakusteko.



6 FUTBOLA Ohorezko erregionalaren garaipena Orion

Lan ona egin zuen Ostadarreko ohorezko erregionalak Orion. Getariako Keta izan zuen aurkari eta lehenengo zatia banako berdinketarekin bukatu zuen arren, bigarren zatia lasarteoriatarrena izan zen. Bereziki, Gorka Brit nabarmendu zen. Honek hiru gol sartu zituen garaipena erraz poltsikoratuz.



ZURE BIGARREN
LEIAR PROGRESIBOAK
OPARI
VARILUX
ERABATEKO BABESA
www.multioplicasgipuzkoa.com
Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Memoria eta autokritika

Joxan Rekondo hizlari Ganbo Iturri elkartearen 'Elkarbizi' egitasmoko saioan

Urte bete baino gehiago da Ganbo Iturri elkarteak ‘Elkarbizi’ ekimena martxan jarri zuela elkarbizitzaren inguruan gogoeta eta pausuak emateko. Dagoeneko asko dira antolatutako jardunaldi eta hitzaldiak. Horien baitan egin zen ere larunbatekoa. Kasu honetan, Ganbo Iturriko Joxan Rekondo aritu zen hizlari.

Irailean bete zuen urte bete Ganbo Iturri elkartearen ‘Elkarbizi’ ekimenak. Hain zuzen, elkarbizitza lantzeko asmoarekin jaio zen egitasmoa. Horrela, gaiaren inguruan hausnarketa egiteko, asko izan dira antolatutako hitzaldiak.

Irailean esaterako, “Euskal seneko balioak elkarbizitzaren alde” gaia landu zuen Enrique Ayerberik. Honek besteak beste, elkarbizitzan auzolanak duen garrantzia azpimarratu zuen.

Urriaren 10ean “Herrieta-ko bizikidetzatza saioak: elkar-rikizketak eta kontrasteak” izenburupean, hainbat hizlari izan ziren euren esperientziak kontatzen, hala nola, Baketik-eko Iker Uson, Tolosako elkarbizitza talde-
Joxe Agustin Arrieta eta Etikartetik Patxi Meabe. Hauen esperientzien gainean gogoe-

ta egiteko aukera izan zuten bertaratutako herritarrek.

Memoria eta ondorioak

Larunbatean egitasmoaren baitako beste hitzaldi bat izan zen Ganbo Iturri Kale Nagusian duen egoitzan.

Joxan Rekondo elkarte-
kideak “Euskal gizartearen memoria eta erresilientzia indarkeriaren aurrean” izenburupean aritu zen. Natxo Izetaren aurkezpenaren ostean, Rekondok hainbat ideia plazaratu zituen gogoe-
tarako.

Erresilientzia hitzaren esanahiari dagokionez, kontrako edota indarkeria esperientzia batetik kalterik gabe ateratzeko gaitasuna ez ezik, esperientzia horretatik ikastea eta hobetzea da.

Hala ere, bestelako gogoetatik abiatu zen Rekondo, hain zuzen, euskal gizar-



Ganbo Iturriko Joxan Rekondo aritu zen hizlari eta moderatzaile lanetan Natxo Izeta herritarra.

tea gaixo dagoenaren baieztapenetik.

Izan ere, asko izan dira honakoa defendatu dutenak bere hitzetan.

Hau esateko “gaixotasu-
naren ideia defendatzen dutenek diote euskal gizartea modu aktiboan edo pasiboan aritu dela biolentziaren aurrean. Batzuek ez dute ezer egin ETaren indarkeriaren aurrean eta beste batzuek, berriz, isiltzea erabaki zuten GAL edota beste-

lako talde paramilitarrek eragindakoaren aurrean. Azalpen honekin, gizartearen bi aldean ardura morala azpimarratzen da gatazkaren baitan”.

“Horrela bada, gizarte osasuntsua eraikitzeko zer egin behar den aztertu behar da memoria kolektibo bat eraiki eta belaunaldi berriei pasatzeko” esan zuen.

Hizlariak, gertatutakoaren errelatoa egitearen garrantzia azpimarratu zuen, “ideologia

sozial baten eraketa, ondo-
rengo belaunaldiek inolako indarkeria eredurik onar ez dezaten”.

Euskal gizartearen autokritika-
karako beharra dagoela nabarmendu zuen eta hau burutzeko, adostu behar-
ko, baldintza etiko-moralak zehaztea beharrezkotzat jo zuen besteak beste.

Ohi bezala, saioan zehar bertaratutakoek gogoetak zein galderak egiteko aukera izan zuten.

Errigorako saskia eskuragarri



Udazkena iritsi da eta aurt-
en ere, Nafarroa hegoaldeko produktuez betetako saski ederra eskuratzeko aukera izango da, Errigora ekimenari esker.

Aurtengo eskaintzan 15 ekoiz-
leren produktuak bildu dituzte. Hala nola, ardo beltz botila, kardoa, oliba olio-
a, orburuak, potxak, mahats zuku-
a, pikillo piper ontziak eta melokotoia al-
mibarrean edo mermeldan izango dituzte saskiak etxera eramaten dituzten pertsonak.

Euskararen alde

Aurten 50 eurotan eskuratu ahal-
ko da saski bakoitza.

Kanpaina berri honetan jasotakoaren %25 Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara bideratuko da, Lodosa eta Vianako ikastolei, Erriberako AEK eta D eredu-
a Nafarroa osora hedatzeko ekimenetara hain zuzen ere.

Eskaera lekuak

Ez galdu aukera. Aurten gainera, Lasarte-Orian eskaera puntu gehiago egongo dira.

Ttakuneko bulegoan, Landaberri DBH institutoan, Landaberri Garaikoetxean, Landaberri Zubietan, Michelin lantegian, Munterri AEKn eta lametza lantegian izango dira eskaera orriak eskuragarri.

Saskien eskaera azaroaren 8a bitartean egin behar da.

Ekimeneko kideek jakitera eman dutenez, saskiak azaroko azken astean banatuko dira Goikale 8 zenbakiko lokalean, lehen Otaegui zapatadenda zen lokalean.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Aruti, Asier Odriozola, Maider Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

DURANGOKO AZOKA

TOKIKOM Saria, ikus-entzunezko sortzaile gazteentzat

Kameratoiaren XI. edizioko sarietako bat izango da

Euskaltzaleen Topaguneak antolatutako Kameratoia, Euskal Herriko Ikus-entzunezko Rallyaren XI. Edizioa Durangoko Azokan egingo da, Irudien gunean. 18-25 urte bitarteko gazte sortzaileei zuzendutako lehiaketak 3.600€ banatuko ditu saritan, tartean lehenengo aldiz emango den TOKIKOM saria.



luz bezala, hiru lan sarituko dira eta hirugarrenak TOKIKOM saria eskuratuko du.

TXINTXARRI

Durangoko Azokak 50 urte betetzen ditu aurtengo eta ekintza pila antolatu ditu bere baitan. Hauetako bat, Kameratoiaren XI. edizioa dugu, non sari berria izango den, TOKIKOM saria.

Kameratoia edo Euskal Herriko Ikus-entzunezko Rallyan 18 eta 35 urte bitarteko gazteek parte ahaliko dute eta 50 ordu izango dituzte haien ikus-entzunezko lanak aurkezteko.

Rallyan parte hartzeko, www.kameratoia.com webgunean eman behar da izena; azaroaren 30a da horretarako azken eguna.

Bi eguneko lana

Parte hartzaileek abenduaren 5ean jasoko dute landu beharreko gaia eta ezaugarrien

berri Durangoko Azokako harrera ekitaldian eta, hori bukatu bezain pronto, 50 ordu izango dituzte, gehienez sei minutuko iraupena izango duen film labur baten gidoia osatu, grabazio lanak egin eta edizio lanak burutzeko, iaz baino bi ordu gehiago, Durangoko Azokaren urteurrenari keinu ginez.

Lehiakideek abenduaren 7an entregatu beharko dituzte bideoak, 14:00ak baino lehen.

Sari banaketa gala, berriz, abenduaren 8an ospatuko da, Durangoko Azokako Irudien ikus-entzunezkoen plaza, Durangoko Zugaza zinemaren.

Bertan, lan guztien emandakia eskainiko da eta epaileek ondorengo sariak banatuko dituzte: Lehenengo

Saria, 1.200 eurokoa izango da; bigarrena, 900 eurokoa eta TOKIKOM saria, 600 eurokoa.

Gizarteratzea

Lehiaketaren helburuetako bat parte hartzaileen ekoizpen artistikoa gizarteratzea da.

TOKIKOMeko zuzendariak, Alaitz Artolazabalek, azaldu duenez, "horrek guztiz bat egiten du toki komunikabideok euskarazko edukia zabaltzeko dugun konpromisoarekin".

TOKIKOM elkarteak irakurtzen ari zaren TXINTXARRI eta beste 59 toki komunikabide batzen ditu bere baitan.

Lehiaketaren oinarriak www.kameratoia.com webgunean daude ikusgai osorik.

BIYAK BAT

Elkarteko Gabonetako loteria

Biyak Bat elkarteak bere bazkide eta lagunei jakin arazten die, gaurtik, azaroak 2, Gabonetako loteria salgai jarrito duela. Zenbakia 93840 da eta bazkide bakoitzari 10 euroko txartel bat emango zaio. Elkarteko kideek gogorarazten dute, bazkide txartela erakustea beharrezkoa dela hau jasotzeko.

INTERNET

KZgunearen ikastaro eskaintza berria

Azaroa eta abenduan zehar Jaizkibel plazan kokatuta dagoen KZgunean hainbat ikastaro izango dira. Azaroaren 9tik 27ra bitartean 9:00etatik 11:00etara oinarritzko Internet ikastaroa egiteko aukera izango da. Azaroaren 9tik 20ra berriz, sare sozialetan trebatu ahal izango dira herritarrek. 11:00etatik 13:00etarako ordutegian izango da.

Abenduan, oinarritzko Internet ikastaroa 1etik 23ra izango da 9:00etatik 11:00etarako ordutegian. Google Apps ikastaroarekin Google tresna ezberdinen inguruan ikasi ahal izango da. Ikastaroa 1ean hasiko da eta abenduaren 16ra arte luzatuko da 11:00etatik 13:00etara. Sare sozialen ikastaroa egingo da ere 9tik 20ra 11:00etatik 13:00etara.

Azkenik, ofimatika ikastaroak osatzen du abenduko eskaintza. Hau abenduaren 9tik 22ra izango da 16:00tik 18:00rako ordutegian.

Ikastaroak doan dira eta aurrez izena eman beharko da. Jaizkibel plaza 14 zenbakira gerturatuta, 943 023 660 zenbakira deituta edota, tutor.lasarte@kzgunea.net helbidera idatzita.

HAUTESKUNDEAK

Korreo bidezko bozka eska daiteke

Espainiako hauteskunde orokorrak izango dira abenduaren 20ean eta hauetan postaz bozkatzeko epea dagoeneko zabalik dago. Bide hau erabili nahi duten herritarrek bozkaren eskaera egin dezakete dagoeneko Correos-eko bulegoan. Ondoren, etxean jasoko da dokumentazioa eta bozka azaroaren 30etik abenduaren 16ra bitartean Correos-eko bulegoan utzi beharko da. Zerbitzua doan da.

DINBI BANDA

Batukadan murgiltzeko saioa

Dinbi Bandako kideek herritarrei; batukadan murgiltzeko pare bat ate ireki saio antolatu dituzte. Horietako bat urriaren 31n izan zen eta bigarrena, larunbatean, azaroak 7, izango da 10:00etatik 12:00etara. Beharrezkoa da izena ematea saio horietan parte hartzeko, ikastaroa@dinbibanda.eus era idatzita, 722 798 585 telefonora hots egin edo sare sozialetan (Facebook edo Twitter) mezu pribatu bat bidaliz.

'Motxian eby' esketx lehiaketa gazteentzat

12-16 urte bitarteko gazteen euskarazko esketx onena sarituko da Buruntzaldea eta Oarsoaldeko eskualdeek antolatutako Motxian Eby esketx lehiaketaren bitartez. Parte hartzaileek euskaraz esketxak, Stop Motion edota Meme teknikak erabiliz egingandako lanak aurkeztu beharko dituzte.

Ekimen honen bitartez, gazteen artean euskararen erabilera sustatu nahi da, hizkuntza alor guztietara eramanez, baita umore zabalduz. Baldintzei dagokionez, esketxak euskaraz izan beharko dira, abestutako nahiz idatzitako edo hitz egindako pasarteetan.

Gutxi gora-behera minutu bateko iraupena izan behar dute eta edozein gailurekin



luz 200 euroko saria, herriko talde batentzat izan zen "Udarako memoriak" izeneko esketxagatik.

grabatu daitezke: eskuko telefonoa, bideo kamera, tablet-a, argazki makina...

Esketxak aurkezteko azken eguna azaroaren 15 izango da eta lanak e-postaz, kaixo@motxianeby.com helbidera bidalita, WeTransfer edo Dropbox erabilita edota Whatsapp bidez aurkeztu ahal izango dira 620 839 104 zenbakira. Bi kasuetan esketxaren izenbu-

ria eta herria adierazi beharko dira.

Sariak

Eskualde bakoitzeko sari nagusia Interneteko bozketa

irekiak erabakiko du. Bozka gehien hartzen dituzten lanek irabaziko dute sari nagusia. Herri bakoitzeko lanek onenaren sariak ere bozketa horietatik aterako dira. Bigarren saria berriz, epaimahai batek emango du eta ikus-entzunezkoaren exekuzio teknika, karakterizazioa, umorea, gidoia edo letra baloratuko ditu. Eskualde bakoitzeko bi sari egongo dira: bideo oneak 300euro jasoko ditu eta bigarrenak 200euro. Herri bakoitzeko saria aldiz, 50 eurokoa izango da.

Lehiatuko diren esketxak, ikusgai jarriko dira www.motxianeby.eus webgunean eta azaroaren 18tik aurrera bozkatu ahal izango dira. Irabazleak abenduaren hasieran emango dira ezagutzera.

Doinu barrokoak komentuan

Danok Kideren XI. Musika Topaketen lehenengo saioa ostiralean izango da

Danok Kide elkarteak XI. Musika Topaketen edizioa antolatatu du. Ostiralean “Entre donaires y burlas” lehenengo saioa izango da 19:30ean Brigitarren komentuan. Honetan arituko dira Amaia Larrayoz eta Marta Santolaya sopranoak Ivan Moreno herritarrarekin batera. Azken honek tiorba eta gitarra barrokoaren doinuak jarriko ditu. Sarrera doan da.

TXINTXARRI

Musika barrokoarekin emango zaie hasiera XI. Musika Topaketei. Azken urteetan bezala, Danok Kide elkarteak hainbat musikari ekarriko ditu Brigitarren komentura.

Lehenengo saioa ostiralean izango da. “Entre donaires y burlas” izeneko emanaldiaz gozatzeko aukera izango dute herritarrek. Honetan, Ivan Morenoren tiorba eta gitarra barrokoaren doinuak jarraituz, Amaia Larrayoz eta Marta Santolaya sopranoak ariko dira.

Moreno etxean

Ivan Moreno herritarrarentzat ez da lehenengo aldia izango gurean.

Bere musika ibilbidea herriko musika eskolan hasi zen. Bertan burutu zituen lehenengo musika ikasketak. Ondoren, Donostiako Francisco Escudero kontserbatoriora pasa zen eta han

graduatu zen gitarra espezialitatean.

Antzinako musika zuen gustuko lasarteoriarrak eta bere formazioa sakondu eta jarraitzeko, Madrilera joan zen Barroko garaiko soka instrumentuak jotzen ikastera. Bertan trebatu zen vihuela, laud, gitarra barrokoa eta tiorban. 2013. urtean bukatu zituen ikasketak Federico Moreno Torroba kontserbatorioan.

Hainbat emanaldi eskainitakoa da eta berriki, bere lehenengo diskoa grabatu du laud barrokoa oinarri hartuta, ‘Melancholia 1719’.

Sopranoak lagun

Herriko kontzertuan, Amaia Larrayoz Iruñeko sopranoa zein Marta Santolaya bilbotarra izango ditu lagun Morenok.

Lehenengoak Madrilen egin zituen kantu ikasketak eta nazioartean hainbat kontzertu eskainitakoa da. Santolayaren kasuan, Errioxan ikasi



Ivan Moreno herritarrarekin Amaia Larrayoz eta Marta Santolaya sopranoak arituko dira.

zuen kantu lirikoa eta egun ‘Juana y Julieta’ haurrentzako antzerkian parte hartzen du besteak beste.

Hirukoteak Brigitarren komentuan eskainiko duen errepertorioari dagokionez, konpositore italiarrek hartuko dute protagonismoa.

Kontzertuak bi zati izango ditu eta hauetan Michel Lambert, R. de Visée, Claudio Monteverdi, Barbara Strozzi, Giovanni F. Sances eta J.S Bachen hainbat obra eskaini-

ko dituzte besteak beste. Pieza batzuk abestuak izango dira eta beste batzuetan tiorbak hartuko du protagonismo guztia.

Ohi bezala, sarrera irekia eta doakoa izango da. Hau dela eta, Danok Kide elkartetik herritarrak animatzen dituzte gerturatzea komentura gerturatzea ostiralean 19:30ean.

Antzerkiak

Bestalde, Danok Kidek bi

antzerki antolatu ditu arazoaren 13an eta 26an Manuel Lekuonan.

Donostiako Teatro Estudiok 50. urteurrena ospatzen du. Ibilbide luzean behin baino gehiagotan izan dira herrian lanak aurkezten eta urteurren honetan ere hala egingo dute bi antzerkirekin: azaroaren 13an ‘Ensayo para siete’ lana izango da 19:30ean eta 26an, ‘Una comedia española’. Hauetara sarrera doan izango da.

Beldur barik bideo lehiaketa martxan da

Bigarren urtez Beldur Barik lehiaketarekin bat egin du Lasarte-Oriako Udalak.

Beldur Barik ekimenak Euskadi mailan bultzatzen du bideo lehiaketa hau beldurrik gabeko jarrerak adierazteko. “Kultura matxista eta indarkeria sexistaren adierazpenak eraldaketarako konpromiso pertsonal zein kolektiboa adierazten dituzten jarrerak dira. Alegia, neska eta mutilek ezberdintasun egoerei nola aurre egiten dieten erakusten duten jarrerak. Errespetuan, askatasunean, autonomian, erantzunkidetasunean eta indarkeriaren bazterketa irmoan oinarritzen direnak”.

Beldur Barik programaren nahia da ahalduz eta jabe-kuntza prozesu horietan laguntzea.

Lasarte-Oria lehiaketa

Gurean, Udalak ere bat egin du egitasmoarekin eta Emakumeen zentroak kudeatuko du herri mailako lehiaketa.



Iazko Beldur Barik lehiaketako sari banaketa Manuel Lekuonan egin zen ere.

Honetan emakumeek jasaten duten bereizkeria-egoerari aurre egiten dieten pertsonen “arte-adierazpen mota oro” onartzen da eta bideoen kalitate tekniko edo artistikoaren gainetik, mezuaren kalitatea baloratuko da.

12 eta 30 urte bitartekoak hartu dezakete parte eta herriko lehiaketan parte hartzeko,

hemen erroldatuta egotea beharrezkoa izango da. Horrela bi kategoria zehaztu dira, 12 eta 17 urte artekoa eta 18-30 urte bitartekoa. Azken honetan, 27 eta 30 urte artekoak, soilik herri mailan parte hartu ahal izango dute. Orokorrean ezin dutelako 26 urtetik gorakoak parte hartu.

Lanak beldurbarik.org guneko formularioa beteta aurkeztu beharko dira eta bertan aurki daitezke ere parte hartzeko oinarri guztiak.

12 eta 26 arteko parte hartzaileen lanek bi aukera izango dituzte saria eskuratzeko, bat lehiaketa orokorrean eta bestea herri mailakoan. Baina aipatu bezala, 27-30 urte

artekoan kasuan, mekanika desberdina da. Hauek lehiaketa orokorretik kanpo egonda, lanak emakume zentroa@lasarte-oria.eus helbidera bideratu beharko dituzte.

Bi kasuetan, lanak aurkezteko azken eguna azaroaren 11 izango da.

Sariak

Bi kategoriatan lehenengo eta bigarren sariak banatuko dira herrian. Lehenengoek 300 euro eskuratuko dituzte eta bigarrenek berriz, 150 euro. Herriko sari banaketa azaroaren 20an izango da 19:00etan Manuel Lekuona kultur etxeko auditorioan.

Bestalde, Euskadi mailan, sariak 500 eta 300 eurokoak izango dira. Irabazle eta aipamen berezia jasotzen dutenentzat hurrenez hurren.

Oinarriak beldurbarik.org webgunean kontsulta daitezke eta informazio gehiago nahi izatekotan, Emakume zentroan edo 943 363 958 telefonoan eskura daiteke.

18 urte oholtza gainean

Lan eta Lan antzerki taldearen urteurrena ospatzeko hainbat ekintza egingo dira

Lasarte-Oriako HHI-EPAko ikasle ohiek sortu zuten duela 18 urte Lan eta Lan antzerki taldea. Geroztik, hamaika dira taularatu dituzten antzerkilarak. Bi aste hauetan zehar, urteurren berezia ospatzeko dute taldeko kideek eta antzerkia nagusi izango den egitarau polita osatu dute.

Lan eta Lan antzerki taldea bere heldutasunera iritsi da. 18 urte igaro dira, baita milaka entsegu ordu, hamaika abentura eta pertsonaia ere, HHI-EPA ikasle ohiek osatutako talde batek haien antzerkiarekiko zaletasuna oholtza gainera eramateko saltoa eman zuenetik. Urtemuga berezi hau ospatzeko hurrengo asteetan hainbat ekintza antolatuko dituzte eta noski, antzerkia izango da protagonista.

Erakusketa

Batetik gaurtik azaroaren 15era, erakusketa izango da Antonio Mercero gunean.

Honetan 18 urte hauetan taldeak erabili dituen atrezzo, zein jantzien erakusgai bat ikusteko aukera izango dute hurbiltzen diren herritarrek.

Erakusketaren ordutegia astelehenetik ostiralera arra-

tsalde izango da, 18:00etatik 20:00etara eta larunbata eta igandean goizez, 12:00etatik 14:00etara.

Gaur, gainera, 18:30ean irekiera ekitaldia prestatu dute eta honetan olerki irakurketa egingo dute taldeko kideek.

Komedia nagusi

Antonio Mercero aretoa ere antzoki bilakatuko dute azaroaren 4an, 19:30etatik aurrera. Bertan kafe-antzokia egingo dute.

Bestetik, taldeko kideek urteurren berezi honetarako prestatutako 'El viejo Celoso' lana ere ikusgai izango da ostegunean, azaroaren 5ean, 20:00etatik aurrera, Manuel Lekuona kultur etxean. Sarrera doakoa izango da.

Cervantes idazle ezagunaren entremesa ekarriko dute oholtzara eta beraz, komedia



Emakumeen nazioarteko eguneko ekintzen barruan, martxoan 'El Tartufo' lana eskaini zuen Lan eta Lan taldeak.

izango da nagusi antzezlan honetan.

Etxean giltzapean duen emakume ez leiala da Lorenza. Egun batean bere senar zahar eta jeloskorak atea giltzaz ixtea ahaztu eta kalera irteten da bere neskame Cristinarekin. Ortigoza bere auzotarrarekin topo egin eta solasean hasten dira. Lorenza eta Cristinaren hitzek senarra barreagarri utziko dute.

Eta azkenik, leku berean, azaroaren 7an, larunbata 19:30ean, irakurketa dramatizatu bat egingo dute Lan eta Lan taldeko kideek. Sarrera 3 eurokoa izango da.

Honetarako Juan José Alonso Millán idazlearen 'El cianuro ¿solo o con leche?' komedia beltza aukeratu dute.

1925 urteko neguko gau hotz batean, Laura eta gupil-

dun aulkian dagoen bere ama Adela 92 urteko aitona erretxina hiltzeko aukera dute. Baina medikua den Enrique lehengusua agertu eta guztia korapilatuko da.

Saio guztiak gazteleraz izango dira.

Lan eta Lan antzerki taldeko lagunek herritarrek gonbidatzen dituzte erakusketa ikusi eta antzerki ekitaldiez gozatzeraz.



Kalean bizi den eskale baten istorioa kontatu zuen dantzariak oholztan.

'Ikusteko olerkia' eskaini zuen Claire Ducreux dantzariak

Manuel Lekuonaren dantza, antzerkia, mimoa edota clown-a uztartzen dituen 'Refugiada Poética' lana ikusi ahal izan zen larunbatean Claire Ducreux dantzariaren eskutik.

'Refugiada poética' lanak liluratu zituen larunbat iluntzean Manuel Lekuonara gerturatu ziren herritarrek. Dantza eta antzerkia maisuki uztartu ditu lan honetan Frantziako dantzariak. Nazioarteko oholtza ezberdinetan aurkeztu ostean, iritsi zen herrira ikuskizuna Jaurilaritzak

dantza sustatzeko duen egitasmoaren laguntzarekin.

Lana deskribatzeko garaian, adituek ikusteko olerki bat dela azpimarratu izan dute. Piano doinuak lagunduta, eszenografia sinplearen gainean egindako interpretazioarekin kalean bizi den behartsu baten istorioa kontatu zuen Ducreuxek. Eskultura bat lagun, kaleko bi hesi bere unibertsoa ate bihurtzen ditu protagonistak. Honen baitan hamaika istorio, amets kontatu zituen dantzariak oholtza gainean bakarrik.

NOAUA!ren KULTURALDIA 2015

Usurbilen azaroaren 6tik 15era

azaroak 9tik 15era

ERAKUSKETA

"LAUKI" Joseba Larretxe. Liburutegian

azaroak 13, OSTIRALA

BERTSO-AFARIA

21:00tan Artzabalen

azaroak 12, OSTEGUNA

HITZALDIA

"Argiaren alaba" 19:30etan Potxoenean

azaroak 14, LARUNBATA

ANTZERKIA

"Arrastokak" 20:00etan Suteagin

azaroak 15, IGANDEA

IBILALDIA

10:00tan Arraizainen

FUTBOLA.-

Ohorezko erregionala, gora begira

1-4 irabazi zion Ostadarrek Getariako Ketak taldeari

Ohorezko erregional taldeak beste garaipen bat gehitu zuen larunbatean Orion jokaturako partidari. Getariako Ketak taldeak baino maila hobea erakutsi zuen. Lehenengo zatia leko berdinketarekin amaituta, bigarren zatian buelta eman eta Gorka Britrek hiru gol sartu zituen etxekoan aukerak agortuz. 1-4ko emaitzarekin pozik itzuli ziren herritarrak.

TXINTXARRI

Orain arte jokaturako norgehiagoka guztiak galdu ditu Getariako Ketak, baina horrek ez du esan nahi erraz irabazten zaionik. Ostadarrek hori frogatu zuen larunbatean Orioko Mendibeltz zelaian. Amaierako markagailua 1-4koa izan arren, gogotik izerditu behar izan zuten Mikel Medina eta Gabi Sanchezen mutilek hiru puntuak Lasarte-Oriara bueltan ekartzeko.

Gogotsu ekin zion norgehiagokari etxeko taldeak, eta berehala jarri zuen lanean Iker Hernando atezaina. Getariakok hiru aukera garbi izan zituen lehenengo minutuetan, baina geldiketa bikainak egin zituen Hernandok. Behar baino tentsio gutxiagorekin ateratu zen zelaia Osta-

dar, eta ordaindu zuen hori: 1-0ekoa 10. minutuan sartu zuten etxekoek, alboko falta jaurtiketa batean.

Are gehiago hauspotu zituen Getariakoko jokalariek gol horrek, eta aurreko lerroetan ongi presionatuz Ostadarren jokoa asko zaildu zuten. Horrez gain, kanpokoak urduritu egin ziren kontrari gol hori jaso ostean, eta zenbait minutu eman zituzten hiru pase jarraian eman ezinik.

Hasierako erauntsi horri eutsi ostean, Ostadar baloia-
ren jabe egin zen eta apurka-apurka arrisku gehiagorekin iritsi zen Getariakoren area ingurura. Era berean, etxeko taldeak behera egin zuen fisikoki, ezinezkoa baita hasierako erritmo hori mantentzea 90 minutuetan zehar. Ondorioz, tartear-



Lehenengo zatian etxekoak nagusi izan ziren arren, herritarrek buelta eman zioten markagailuari bigarren zatian.

uzten hasi zen atzeko lerroan, eta lerro arteko pase bikain baten ostean banakoa ezarri zuen Rober Gutierrezek, atezainaren aurrean bikain jaurtiz. Emaitza horrekin iritsi ziren atsedenaldira.

Ostadarren erreakzioa

Aldageletatik beste jarrera batekin ateratu zen zelaia Ostadar, hiru puntuak zakurtzeko asmo irmoarekin. Aurrelariak presio bortitza egiten hasi ziren, eta etxeko taldekoen akatsak baliatu

zituzten markagailuari buelta emateko.

Protagonista nagusia, nola ez, Gorka Brit. Lehenengo jardunaldietan kamuts ibili zen ate aurrean, apenas eduki baitzuen aukerarik golik sartzeko. Hiru sartu zituen Hernaniren aurka, eta larunbatekoan ere beste hiru sartu zituzten Getariakori, erakutsiz ez zaiola ahaztu golak sartzeko.

Nahiko jarraian etorri ziren 1-2 eta 1-3koa, baina horren ostean Getariakok ez zuen amore eman, eta arris-

kua sortu zuen Hernandoren area inguruan. Dena dela, ezin izan zuten aldea murriztu eta partidua amaitzear zela sekulako gola sartu zuen Britrek, zerrendako hirugarrena, Gorka Marcosen pase sakon baten ostean balaia atezainaren gainetik loratuz.

Gauzak horrela, hiru puntu garrantzitsu zakuratu zituzten herriko taldekoek, eta bosgarren dira sailkapenean 13 punturekin. Tolosa Liderra hartuko dute datorren jardunaldian Michelinen.

MENDI-DUATLOIA.-

Gartzia bigarren Zubietan

Giro aparta izan zen larunbat arratsaldean Zubietako V. mendi duatloian. Guztira 120 parte hartzaile izan ziren, horietatik 8 emakumeak. Korrikalariak 15:30ean hasita, 5,6 km egin zituzten lehenengo korrika. Jarraian, bizikletak hartu eta 14,4 km-ko ibilbidea osatu zuten mendi ibilbide malkartsuan eta bukatzeko, 2,3 km lasterka helmuga zeharkatzeko.

Horrela izanda, faboritoek ez zuten hutsik egin. Proba hasi aurretik, antolatzaileek garaile ikusten zituzten Julen Larruzea gizonezkoetan eta Aitziber Ibarbia emakumezkoen taldean. Lehenengoak iaz irabazi zuen Zubietako proba baina aurten, bizkaitararen zuzeneko aurkaritzat zuten Endika Gartzia.

Herritarra bigarren

Emaitzak ikusita, antolatzaile-



Lehenengo lerrotik abiatu zen Endika Gartzia. Behean, herritar taldea.

leek bete-betean asmatu zuten. Lehia estua izan zuten Larruzeak eta Gartzia eta azkenean gutxiatik bigarren urtez jarraian Larruzeak jantzi zuen txapela. Honek ibilbidea 1:06:26ean egin zuen eta Gartzia berriz, 1:06:44ko denboran. Hirugarrena Eneko Gurrutxaga izan zen 3 minutu beranduago sartuta.

Nesken kasuan, Ibarbia gailendu zen 1:32:00ko denborarekin. Emakumezkoetan ere borroka izan zen eta Zuriñe Frutos 39 segundo



beranduago soilik helmugaratu zen. Hirugarren izan zen Miren Otzerinjauregi 1:33:10 denbora eginda.

Proba honetan ohitura bihurtzen ari den bezala, asko izan ziren parte hartu zuten herritarrak.

GAZTEAK.-

400 gazte baino gehiago Eskola Kirolan

Kirolariak dira oso herriko belaunaldi berriak, 400 gaztetxo baino gehiago ari baitira aurten Eskola Kirola egitasmoan. Landaberri zein Sasota ikastetxeetako ikasleak dira, eta klaseetatik kanpo hainbat kirolatan ari dira murgiltzen.

Neska-mutil horiek guztiek aukera oso zabala dute: tenisa, atletismoa, futbola, saskibaloia, judoa, pilota, natur ekintzak, josta-kirola... Aspertzeko astirik behintzat ez daukate gazte-txoek.

Ttakin Kultur Elkarteko antolatzaileak gustura dira parte-hartzaile kopuruarekin, herriko belaunaldi gazteenek kirola eginez tarte on bat igarotzea baita haien helburua.



PADELA.-

Padel pistan zoru berria jarri da

Osorik berritu zen aurreko astean zehar Loidibarrengeko padel pistako zoruak. Udalak adierazi duenez, oso hondatuta zegoelako egin da konponketa. Honen aldaketa egiteko, 5.566 euroko inbertsioa egin da eta Gestión de Proyectos enpresak gauzatu du. Ordezkatu den belarra fibrilatu motakoa zen, eta instalatu dena berriz, filamentu bakarrekkoa da.

Zuntz mota berri hau gogorragoa da erabilerak eragindako desgastaren aurrean. Hori dela eta, erabilerak baldintza normaletan, gehiago iraungo du zoru berriak.

— Agenda —

Ostirala, Manuel Lekuona, 22:00etan



"Amama" filma gurean

Donostiako Zinemaldian aurkeztutako "Amama", Asier Altuna zuzendararen filma ikusi ahal izango da gurean. Jatorrizko hizkuntzan, hau da, euskaraz emango da gaztelerazko azpi tituluekin. Sarrera 5,50 euro izango da eta bi saiotan ikusteko aukera izango da. Ostiraleko zine forumean lehenengoa eta bigarrena igandean 19:00etan. Ostiraleko saioan zuzendaria egongo da eta berarekin solasaldia gidatuko dute Okendo Zinema taldeko kideek.

Lasarte-Oria

Antzerkia
ANTONIO MERCERO GUNEA
Asteazkena, 19:30ean
Lan eta Lan antzerki taldearen urteurrenaren baitan, kafe-antzokia egingo du taldeak. Sarrera doan.

MANUEL LEKUONA
Osteguna, 20:00etan
Lan eta Lan antzerki taldearen urteurrenerako prestatutako "El viejo Celoso" antzezlanak ikusi ahal da. Sarrera doan.

MANUEL LEKUONA
Larunbata, 19:30ean
Lan eta Lan antzerki taldearen urteu-

rrenean. Taldeak "El cianuro ¿solo o con leche?" lanaren irakurketa dramatizatua egingo du. Sarrera 3 euro.

Solasaldia
XIRIMIRI ELKARTEA
Asteazkena, 19:00etan
Elkartean bi afari-merienda antolatu dira hilabete honetarako. Lehenengo honetan, Siria eta Kurdistango egoeraz arituko da Txente Rekondo.

Musika
BRIGITARREN KOMENTUA
Ostirala, 19:30ean
"Entre donaires y burlas" kontzertu barrokoa antolatu du Danok Kide elkar-

teak XII. Musika Topaketen baitan. Honetan arituko dira Ivan Moreno torba eta laudarekin, Amaia Larrayoz eta Marta Santolaya sopranoekin. Sarrera doan.

Zinea
MANUEL LEKUONA
Igandea, 17:00etan
Haurren zine atalean "Minusculos" filma ikusi ahal da. Sarrera 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA
Igandea, 19:30ean
Helduen zine atalean berriz eskainiko da "Amama" filma. Euskaraz gaztelerazko azpitituluekin. Sarrera 5,50 euro.

Erakusketa
ANTONIO MERCERO GUNEA
Azaroaren 2tik 15era
Lan eta Lan antzerki taldearen 18. urteurrena ospatzeko atrezzo eta jantzi erakusketa izango da. Irekiera ekitaldia izango da, gaur 18:30ean eta olerki irakurketa egingo da.

Usurbil

Musika
SUTEGI
Ostirala, 20:00etan
Mikel Urdangarinen bakarkako kontzertuaz goatzeko aukera. Sarrera 10 euro (aldez aurretik 8 euro Bordaxon, Artzabalen, Lizardin eta Noaia!ko egoitzan). Noaia!ko bazkideek 6 eurotan erosi ahal izango dute Noaia!ko egoitzan aldez aurretik.

Andoain

Musika
BASTERO
Ostirala, 21:30ean
"Reciclart 2.0" ikuskizuna ikusteko aukera. Publikoak birziklatzeko ohitura hartu eta animatu dadin laguntzen duen ikuskizuna da, modu desberdin eta dibertigarri batean, sortutako musika tresna berriekin, mugimendu neurtuekin eta umore askorekin. Beraien erritmo bizi eta kutsakorrek soinu brasildarrak, arabiar-andaluziarrak edo techno eta musika klasikoa sortuko dute. Sarrera 12 euro.

— Herritarren txokoa —

62an jaiotako en afaria
1962an jaiotako en afaria antolatuko da, azaroaren 14ean, Donostiako Kaskazuri jatetxean.
Menua 40 eurotakoa da eta Laboral Kutxako ES78 3035 0036 12 0361135678 kontu korrante zenbakian egin behar da diru sarrera.
Harremanetarako, 646 274 376, Beatriz.

63an jaiotako en afaria
Aurten ere 63an jaiotako en afaria antolatuko da. Azaroaren 21ean, 21:00etan, Goiegi Jatetxean egingo da afaria. Aurrez, Okendo plazan geratuko dira 20:00etan pote bat hartzeko.
Menua 36 eurotakoa da eta Laboral Kutxako ES13 3035 0036 150361135634 kontu korrante zenbakian egin behar da diru sarrera.
Informazio gehiago, Agustin Markos, 600 799 772 edo J.F. Solano, 657 770 318.

55ean jaiotako en afaria
1955ean jaiotako en afaria antolatuko da azaroaren 21an. Informazio gehiago eskuratzeko deitu zenbaki hauetara Begoña 678 90 34 99, Mariano 658 70 64 73 edo Mariasun 627 70 12 41.

65ean jaiotako en afaria
1965ean jaiotako en afaria egitea pentsatu dugu. Hau azaroaren 28an izango litzateke gure lehenengo 50 urteak ospatzeko. Informazio gehiago eskuratzeko Olga 687 845 623 edo Idoia 653 712 373.

— Sarean —

Txio berri bat konposatu

#euskarabilduaren @euskarabilduaren

Media Kokapena ezg... Inkesta 103 Txikiatu

#dataolat

Firefox eta Chrome nabigatzaileetarako argitaratu du ianetzak #dataolat gehigarriak traola eta erabiltzaile-izenei kasu marka eta postposizioak modu naturalago batean gehitzeko aukera ematen du.

Twitterreko euskal erabiltzaileek traola eta erabiltzaile-izenei kasu markak eta postposizioak gehitzeko hainbat modu desberdin erabiltzen dituzte.

Adibidez, #euskarabilduaren idatzi nahi badugu horrelakoak ikusten dira: #euskarabildua-ren #euskarabildualren #euskarabildua ren #euskarabildua'ren #euskarabildua.ren Baina zergatik ez erabili #euskarabilduaren, hori bada nahi duguna? Orain arte ezinezkoa zen baina ianetz interaktiboan garatu duten Firefox, Chrome eta Safarirako gehigarriei esker posible da modu erraz batean hori egitea.

Zuen oharra jarri, kexa adierazi edo eskutitza argitaratzeko:
Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info



Eguraldi ona lagun, batez ere larunbata eguerdian eta igande goizean ibili ziren herritarrek azokako postuak ikusten.

Azoka asteburua Okendon

70 eta 80. hamarkadetan girotutako azoka izan da

Azoka bereziak hartu zuen Okendo asteburu osoan zehar. 34 postu kokatu ziren bertan eta herritarrek denetarik produktuak dastatu eta erosteko aukera izan zuten. Umeentzat hainbat jolas egon ziren eskura eta baita filmak ikusteko aukera izan zen.

Ostiralean, udal ordezkariak, Jesus Zaballo alkatea buru, zabaldu zuten modu ofizialean azoka. 17:00ak aldera dena ireki eta herritarrek 34 postuetako produktu eskaintzaz gozatzeko aukera izan zuten.

Txikiak puzgarrietan jolasteko aukera izan zuten eta gaztetxoagoak berriz, Nacho magoaren trikimailuekin ederki pasatu ahal izan zuten.

Larunbatean, eguraldi eguzkitsua lagun, asko izan ziren erdigunetik pasa ziren herritarrek.

70 eta 80. hamarkadetako musikak girotuta, gustura aritu ziren herritarrek leku ezberdinetatik ekarritako barazki, gazta, txerriak edota gozoak erosten eta dastatzen.

Horretaz gain, hainbat bitxi eta jolas postu izan ziren eta plazan bertan bazkaldu edota afaldu nahi izan dutenek ere aukera izan dute. Talo ekologikoez gain, brasak asteburu osoan piztuta egon dira, txorizoa, sahieskia eta bestelako txerriak aukeran.

Haize zatarra medio, larunbatean txikiak zuten puzgarriak ezin izan ziren mar-

txan jarri lehenengo orduan. Arratsalderako hala ere, berriz puztuta zeuden hauen gozamenerako.

Ikuskizunak

Magia ikuskizunak izan dira asteburuan zehar, photocall-a eta marrazki tailerrak umeentzat.

Filmak ere proiektatu dira. Larunbat arratsaldean 'Los Goonies' 1985. urteko film arrakastatsuen txanda izan zen. Udaletxeko arkupetan egin zen emankizuna eta bertan izan ziren nagusiki haurrak nahiz eta heldu batzuk ere pantaila aurrean bildu ziren.

Igandea berriz, azokan azken erosketak egiteko baliatu zuten herritar askok.

Orokorrean produktu eskaintza ona aipatzen zuten herritarrek, eguraldiak ere lagundu duela onartuta.



Udal ordezkariak zabaldu zuten ostiral arratsaldean azoka.



Haurrek Nacho magoaren ikuskizunaz gozatu zuten ostiralean.



Puzgarrietan ederki pasa ahal izan zuten txikiak asteburu osoan zehar.



Magia egiteko jokoak salgai zituen postuak jende andana erakarri zuen. Saltzaileak hainbat trikimailuekin deitzen zituen herritarrek.



Jakiak erosteko postuak nagusitu ziren azokan, taloak ere izan ziren tartean.